

## AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko azaroaren 19an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Osasun sailburua,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

## DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 1996.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda  
y Administración Pública,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Sanidad,  
IÑAKI AZKUNA URRETA.

**OGASUN ETA HERRI  
ADMINISTRAZIO SAILA****Zk-5892**

268/1996 DEKRETUA, azaroaren 19koa, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusiak lehiaketa-prozesuetan akordioak eta hitzarmenak sinatzeari buruzkoa.

Euskal Autonomi Elkarteko 1996ko Aurrekontu Orokorrak onartzeko abenduaren 29an emandako 6/1995 Legearen azken xedapenetatik lehenengoaren bitartez, 3. idazati berri bat sartu zen Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusia Antolatzeko Printzipioei buruz indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzeko maiatzaren 17an emandako 1/1988 Legegintzako Dekretuaren 42. atalean. Ondorioz, Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusiak ahalmena du zenbait lehiaketa-prozeduratan akordioak eta hitzarmenak sinatzeko; beti ere, erregelamenduz zehaztutako organoak baimena eman ondoren. Hauek dira lehiaketa-prozesu horiek: Judizionamendu Zibileko II. Liburu XII. Idazpuruko 6. sekzioan, liburu berbereko XII. Idazpuruko 1. eta 8. sekzioetan eta Ordainketa-Etendurei buruz 1922ko uztailaren 26an emandako Legean aurreikusten direnak.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 1996ko azaroaren 19an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

*Atal bakarra.- Eskumena duten organoak.*

Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusia Antolatzeko Printzipioei buruz indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzeko maiatzaren 17an emandako 1/1988 Legegintzako Dekretuaren 42. ataleko 3. idaztian aipatzen diren lehiaketa-prozesuetan akordioak eta hitzarmenak sinatzeko eskumena Ogasun eta Herri-

**DEPARTAMENTO DE HACIENDA  
Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA****Nº-5892**

DECRETO 268/1996, de 19 de noviembre, sobre suscripción por la Hacienda General del País Vasco de acuerdos o convenios en procesos concursales.

La Ley 6/1995, de 29 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 1996, introdujo en su disposición final primera un nuevo párrafo 3 al artículo 42 del Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, que permite a la Hacienda del País Vasco, previa autorización del órgano que reglamentariamente se determine, suscribir los acuerdos o convenios en procesos concursales previstos en las secciones 1.<sup>a</sup> y 8.<sup>a</sup> del Título XII y en la sección 6.<sup>a</sup> del Título XIII, ambos del Libro II de la Ley de Enjuiciamiento Civil y en la Ley de Suspensión de Pagos de 26 de julio de 1922.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 19 de noviembre de 1996.

## DISPONGO:

*Artículo único.- Órganos competentes.*

La suscripción de los acuerdos o convenios en los procesos concursales a que se refiere el párrafo 3 del artículo 42 del Decreto Legislativo 1/1988, de 17 de mayo, por el que se aprueba el Texto refundido de las disposiciones legales vigentes sobre Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, será reali-

Administrazio Saileko Ondare eta Kontratazio zuzendarriak izango du, baina aldez aurretik, eta jarraian aipatzen diren kasuetan, organo hauen baimena beharko du:

a) Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusiareki-ko zorra 500 milioitik gorakoa bada, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da.

b) Euskal Autonomi Elkarteko Ogasun Nagusiareki-ko zorra 100 eta 500 milioi bitarteko bida, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren baimena beharko da.

#### AZKEN XEDAPENA

*Bakarra.* – Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 1996ko azaroaren 19an.

Lehendakaria,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ogasun eta Herri Administrazio  
sailburua,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

zada por el Director de Patrimonio y Contratación del Departamento de Hacienda y Administración Pública. Se requerirá previa autorización en los supuestos y por los órganos siguientes:

a) Será preceptiva la previa autorización del Consejo de Gobierno cuando los débitos a la Hacienda General del País Vasco excedan de 500 millones.

b) Será preceptiva la previa autorización del Consejero de Hacienda y Administración Pública en el caso de débitos entre 100 y 500 millones.

#### DISPOSICIÓN FINAL

*Única.* – Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 19 de noviembre de 1996.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

El Consejero de Hacienda  
y Administración Pública,  
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## INDUSTRI, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### Zk-5893

AGINDUA, 1996ko irailaren 30ekoa, Industri, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioko batzorde kudeatzailea sortzeko dena.

Arrantzale kofradia eta horien Federazioetako haueskundeei buruzko 1991ko apirilaren 12ko Aginduak, 3.4 ataleko 2. Ierroaldian, honako hau ezartzen du: «Arrantzale kofradiek eta federazioek, aurretik ezarritako epearen barruan eta legearen arabera, beren organo artezkariak berritzeko hauteskunderik egiten ez badute, berez bukatuko da organo-kide horien agintea eta, bukatu ondoren, dagokion Administrazioak izendatuko du batzorde kudeatzailea. Aipatutako organo artezkarien eginkizuna bereganatuko du batzorde kudeatzileak eta hauteskundeak egingo ditu berehala.»

1978ko abuztuaren 31ko Aginduak, arrantzale kofradia eta federazioetako edozein organo artezkari osatzeko aukeratzen diren karguen agintaldia lau urtekoia izango dela ezartzen du, eta Bizkaiko Kofradien Federazioaren estatutuetako VII. idazpuruan ere hala jasotzen da. Hala ere, Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioiko organo artezkariak berritzeko azken hau-

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, AGRICULTURA Y PESCA

### Nº-5893

ORDEN de 30 de septiembre de 1996, del Consejero de Industria, Agricultura y Pesca, por la que se crea la Comisión Gestora de la Federación de Cofradías de Pescadores de Bizkaia.

La Orden de 12 de abril de 1991 sobre Elecciones en Cofradías de Pescadores y sus Federaciones establece en su artículo 3.4, párrafo segundo: «Cuando Las Cofradías de Pescadores y sus Federaciones no realicen legalmente, en los períodos anteriormente fijados, las elecciones para la renovación de sus órganos rectores, quedarán automáticamente extinguidos los mandatos de las personas integrantes de dichos órganos, designándose seguidamente por la correspondiente Administración una Comisión Gestora. Dicha Comisión asumirá las funciones de los citados órganos rectores y procederá a la inmediata celebración de las elecciones.»

Dado que las últimas elecciones para la renovación de los órganos rectores de la Federación de Cofradías de Pescadores de Bizkaia tuvieron lugar en el mes de marzo de 1992 y que, en virtud de la Orden de 31 de agosto de 1978, que establece que el mandato de los cargos elegidos para cualquiera de los órganos rectores de las Cofradías de Pescadores y sus Federaciones tendrán una